

Irisarri



"Irisarri" hitzaren erranahia :

Orpustan Jaunak (irakasle eta idazle) erraten dauku "sasi batean den hiria" erran nahi duela (Iri: leku eta Sari: sasi).

Beste interpretazio bat bada ere, non "Irisarri", "Irisagar" hitzari hurbiltzen den. Beraz, pentzatzen ahal da irisagarrak bazirela gure herrian...

Irisarriren kokapena :

Irisarri, Ipar Euskal Herrian kokatua da, Baxe Nafarroan, 225 metroko goratasunean, Baigura mendiaren pean (897m).

Irisarrik 26,6 km² egiten ditu.

Irisarrin 836 biztanle badira 2007-ko jende kondaketaren arabera.

Irisarriko jende kopurua

1793	1800	1806	1821	1831	1836	1841	1846	1851
1 050	1 042	1 056	1 115	1 179	1 228	1 192	1 359	1 322
1856	1861	1866	1872	1876	1881	1886	1891	1896
1 210	1 223	1 180	1 142	1 239	1 250	1 278	1 171	1 120
1901	1906	1911	1921	1926	1931	1936	1946	1954
1 123	1 077	1 123	1 035	1 004	964	957	947	903
1962	1968	1975	1982	1990	1999	2007-	-	-
827	749	761	756	751	728	836-	-	-

Irisarriko kartierrak :

Irisarrin 9 kartier badira : Erdoize, Plaza, Zelaia, Xerraxarre, Pagosune, Baigura, Itzalg, Oihanburu, Basaita.

Irisarrik hunkitzen ditu Suheskune, Ortzaize, Heleta eta Iholdiko herriak.

Monumentuak :

Bisitatzeko ahal dira ondarearen zentroa Ospitalea deitzen dena, eliza... Mendietan ere ibiltzeko ahal da...

Historia :

Irisarri sortu zen Ospitalea eta otoiztegiarekin batera, XII. mendean, guti gora behera 1150 urtean.

1350 urtean, 23 etxe baziren Irisarrin. Ospitalea eraikineko jabea Irisarriko arduraduna zen eta etxe guztiak manatzen zituen, salbu bi.

1607 urtean, "Martin de Larreak" Ospitalea berreraikitzen hasi zen (hospitale bat egin nahi zuen) eta Nafarroako eraikin ederrena bilakatu zen.

Otoiztegia eraikia izan zen eta eliz bihurtu zen. Elizak berezitasun bat atxiki du : hil-lauzek lurra estaltzen dute.

Geroztik, 1860 urtean, eliza berriz aldatua izan zen. 2002 urtean, Pirineo Atlantikoko departamenduak Ospitalea erosi du, ondarearen zentro bat idekitzeko.

Elkarteak :

Irisarrin, aintz elkarte badira : eskubaloia, pilota, euskal dantza, ihiztariak, besta komitea, korala, eskolako burasoen elkarteak, banda musika talde bat, pala ...

Bestak :

Irisarriko herriko bestak ekaineko lehen asteburuan dira. Anitz jende ibiltzen da. Badira haur guziendako jokoak.

Eskolak :

Irisarrin badira bi eskola : bat publikoa elebiduna 82 haurrekilan eta bestea San Josep eskola katolikoa 33 haurrekin.

Ostatuak :

Irisarrin lehenago 12 ostatu baziren, orain bakarrik 4 dira.